



<b>Ekipoa</b>	<b>Ultrasoinuen bidez garbitzeko, koipegabetzeko eta lehortzeko makina</b>
<b>Kodea</b>	F-6004
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Ez da perkloroetilenorik eta trikloroetilenorik kontsumitzen, haien ordeztu detergente biodegradagarria erabiltzen baita. Horrenbestez, hondakinak minimizatzen dira, eta ez da konposatu organiko lurrunkorrik igortzen.
<b>Honetan datza:</b>	<p>Ultrasoinuen bidezko garbiketarako frekuentzia handiko soinu-uhinak erabiltzen ditu hainbat objektu efizientzia handiagoz garbitzeko, bai disoluzio urtsuetan, bai disoluzio erdi-urtsuetan, bai garbiketa-disoluzioetan. Garbiketa-disoluzioetan presio txikiko eta handiko eremuak sortuz, soinu-uhinek burbuila mikroskopikoak sortzen dituzte, eta, soinuaren presioa aldatzen den neurrian, burbuila horiek hutseko presioa egiten dute tratatu beharreko azaleraren gainean. Prozesu hori kabitazioa deitzen da.</p> <p>Teorikoki, 1.000 baretik gorako presio lokalizatua sortzen da, eta horrek errazten du gantzak eta zikinak ezabatzea. Hainbat materialen osagaiak eta zatiak garbitzeko, koipegabetzeko eta aurre-akabera automatikorako erabiltzen da teknika hori.</p> <p>Piezak saski birakarietan sartzen dira. Saskiak automatikoki kargatzen den zinta garraiatzailean jartzen dira, eta, robot bidez, koipegabetze-, irakuzketa- eta lehortze-prozesuko fase batetik bestera doaz.</p> <p>Saski batean sartutako piezak urez eta detergentez betetako upel batean sartzen dira. Detergentearekin, tenperatura jakin batean eta ultrasoinuek aktibatuta, piezen gainazalean dauden zikin-partikulak ezabatzen dira. Piezak upel batetik bestera igarotzen dira, ongi irakuzi eta lehortzeko.</p> <p>Prozesuak, orokorrean, honetan datza:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Piezak saski birakarietan kargatzea.</li> <li>- Sakietan detergente beroa sartzea (ezberdina da burdinazko piezetarako eta ez-burdinazkoetarako).</li> <li>- Piezak murgildu ondoren, ultrasoinuen bidez aktibatutako detergentearen eta errotazioaren laguntzaz, piezen gainazaleko zikin-partikulak ezabatzen dira.</li> <li>- Pieza ferriko eta ez-ferrikoentzat. Ultrasoinuekin aktibatutako uretan irakuztea.</li> <li>- Pieza ez-ferrikoentzat. Tratamendu-sistematik datorren ur berotan murgilduz irakuztea (ondoren, ur hori tratamendu-sistemara itzultzen da).</li> <li>- Pieza ferrikoentzat. Uretan disolbagarria den produktu babeslean irakuztea.</li> <li>- Aire beroarekin lehortzea.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"><li>- Deskarga.</li></ul> <p>Saskiak upel batetik bestera automatikoki mugitzeko, ultrasoinuak eta kargatzeko/deskargatzeko eremua ere kontrolatzen dituen manipulatzailerak erabiltzen da.</p>
<b>Honako hauek aplikatu daitezke</b>	<p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Horrelako prozesuak egiten dituzten sektore guztietan, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Tratamendu metalikoen industria (NACE 25.6).</li><li>- Metalaren industria (NACE 24).</li><li>- Industria aeronautikoa (NACE 30.3).</li><li>- Industria kimikoa (NACE 20).</li></ul>